

## **Martin Ugalde idazle "berriarekin": "Euskarari zerbait zor diot"**

[Egile ezezaguna]

*Deia*, 1983-06.

Euskal Herriak bere mugetatik kanpo euskaldun ezagun eta prestijiosurik edukitzekotan, ezin ohore hori Martin Ugalderegandik urrun utzi. Euskal Herrian bertan, berriz, askotan nolabaiteko hutsunea egin da bere inguruan, eta askok zailki eman dio euskal idazle izena. Gehienbat erderaz idazteagatik, noski. Hogeitabost urte egin ditu atzerrian martin Ugaldek, Ameriketara, Frantziara, Afrikara..., eta urte guzti hauetan zehar ez du behin ere idaztetik utzi: "zoritarrez, atzerrian ibiltzeagatik erderaz idatzi behar izan dut, nik idazle bezala bizi nahi nuen eta".

Hona zergatik esan daiteken beldurrik gabe gaurregun Martin Ugalde berri baten aurkitzen garela: bere buruari egin dion apustuaren arabera, euskaraz idazten hasteko asmotan dabil: "Lehendik ere ba daukat euskaraz idatzitako gauzarik, baina etxeko euskara errazean. Orain, gazteleraz egiten dudana antzera, hizkuntza landu batean idazten hasi nahi dut, eta ipuin liburu bat egiten ari naiz euskararekin borrokan. Oso zaila egiten zait nik nahi dudana eraz euskaraz idaztea, baina euskararen bideak irekitzeko lanean jarraituko dut. Nere buruak eskatzen didana zerbait da, bai eta bihotzak ere, euskarari zerbait zor izango banio bezala..."

DEIA-ko irakurleentzat Martin Ugaldere bide berri hau guztiz probetxugarria gerta daiteke, gure artean hasiko baita hauetako egunen batean bere entrenamendu zail horren ondorioak zabaltzen. "Komunikabideetan ez badugu euskara sartzen, galdua gaude. Eta hemen agintariak ez dakite norainokoa den daukaten responsabilitateak. Euskal aldizkari eta egunkariak beharrezkoak dira, eta euskal prentsa ez bultzatzea defizitariora delako responsabilitate handia da".

"Las brujas de Sorjin", "Hablando con los vascos", "Síntesis de la historia del País Vasco"..., eta abar luze bat, Euskal Herriari buruz, baina erderaz, Hemendik aurrera, benetan esan ahal izango da Martin Ugalde idazle euskaldun bat dela, inork ere irrifarre maltzurik izuri gabe: "Halere, ez dauka erdera zerao baztertzeko asmorik. Beste gai batzuri buruz esandako hitzek adierazten duten bezala "neri ez zaizkit gustatzen erboluzioak. Erboluzioek asko egiten dute, baina asko puskatu, eta hemen ez gaude ezer puskatzeko moduan. Nik eboluzio kontrolatu batean sinesten dut..."